

PENTSATZEN DUZUNA BAINO **GEHIAGO EGIN DEZAKEZU**

Bazen behin neskato bat Lidia izenekoa. 13 urte zituen eta oso eskuzabala zen, irudimen handia ere bazeukan, baina beldurtia zen. Lidia nahiko luzea zen alturaz, eta beti zeraman koilar bat soinean. Ilea luzea, leuna eta marroia zeukan, bere begiak bezala, begiak ere marroiak zituen. Lentilak erabiltzen zituen, ez zituen betaurrekoak erabiltzen ez zitzaizkiolako gustatzen. Lidia Donostian bizi zen.

Otsailaren 6a zen, asteartea. Horregatik, hurrengo egunean, asteazkenean, ikastolara joan behar zen. Ikastolan, Lidiak armiarma txikitxo bat aurkitu zuen ikasgelan, eta beldurtia zenez, oihuka hasi zen. Bere ikaskideak barrez hasi ziren, eta gelako hiru gaiztoenak, Mara, Jon eta Nerea, 'beldurti' deitzen hasi ziren, Lidia negarrez utziz. Beti deitzen zioten 'beldurti' Marak, Jonak eta Nereak, eta Lidia beti asko amorratzen zen. Bere lagun Txominek, beti laguntzen zion horrelako kasuetan, eta Lidia poztu egiten zen Txominen hitzak entzunda.

Asteazken arratsaldean, Lidiaren amama bisitatzeraz etorri zen Lidiaren etxera, galletak egin bait zituen. Lidiaren amama eta berak oso harreman ona zuten elkarren artean, eta elkarri sekretuak kontatzen zizkioten. Horregatik, amona etxera etortzean, kontatu zion Lidiari, basoan, bola magiko bat zegoela, eta bola magiko horrek nahi zenuen desioa betetzeko balio zuela. Baina arazo bat zegoen, bola magiko horrek desio bakarra betetzen zuen.

Lidia harrituta gelditu zen. Ez zekien nola jakin zezakeen hori bere amonak, orduan galdetu egin zion, eta hau erantzun zuen: 'Txikia nintzenean basora joan eta bola bat ikusi nuen. Harrituta, berriro etxera bueltatu eta nire amonari esan nion gertatutakoa. Nire amonak asko zekien horrelako gauzetaz, liburu mordoa zeuzkan antzeko gauza misterioetsuei buruz, eta 2 egun pasatu ondoren, deskubritu zuen zer zen: Basoko bola magiko bat. Zertarako balio zuen esan zidan, eta ni berriro joan nintzen basora, baina oztopo zailak zeuden bera lortzeko, eta ez nuen lortu bola hartzea.'

Lidia pozez txoratzen zegoen, eta bere lagun Txomini esatea pentsatu zuen. Txomin enteratzean, Lidia bezain pozik jarri zen, ez zuen espero horrelako gauzarik egon zitzatekeenik munduan. Berehala hasi ziren txango bat prestatzen, eta, berehala, dena prestatuta zeukaten.

Egun batzuen ostean, Lidia eta Txomin bidaia egiten hasi ziren, baina hasi baino lehen, behar zuten guztia zeukatela ziurtatu zuten: motxila, ura, janaria, linterna, telefonoa, eta garrantzitsuena, amonak emandako mapa bat. Orduan bai, abentura berri bat hastear zegoen. Basoan barrena sartzeko, Donostiako parkeko atzekaldera joan behar ziren. Orduan, Txominek eta Lidiak hori egin zuten. Basoan sartzean, mapan jartzen zuten bidea jarraitu zuten, eta, horrela, toki misterioetsu batean sartzea lortu zuten. Toki hori kolorez beteta zegoen, argitasun handia ere bazegoen, eta, alde guztietatik goxokiak zeuden. Liluratuta, toki horretan gelditu ziren 5-10 minutu, eta, ondoren, bidaiatzen jarraitu zuten. Batzuetan kostatu egiten zitzaien ondo orientatzea, baina beti bukatzen zuten bide zuzena aukeratzen.

Bat-batean, toki miresgarriaren bukaerara iritsi ziren, eta bukaeran kobazulo bat

zegoen. Mapan kobazulotik pasatu behar zela jartzen zuen, eta, ez zutenez galdu nahi, kobazulo barrura sartu ziren. Lidiari beldur handia ematen zion kobazulo barrura sartzeak, baina bola magikoa nahi zuenez gero, sartu egin zen. Irteterakoan, geroz eta beldur gehiago zeukan neskak. Beste aldeak baino askoz beldur gehiago ematen zuen. Dena beltza zen, zuhaitzen artean begi gorriak ageri ziren, eta txarrena, ez zegoen argi asko! Eskerrak biek linternak ekarri zituztela, bestela buelta erdi eman beharko zuten etxera.

Linternak piztuta, aurrera jarraitu zuten, eta 200 metro ibili ondoren, harrizko ate bat agertu zen beraien parean. Diamanteak zituen inguruan, eta eskuinean zerbait zegoen idatzita, hau jartzen zuen: 'Ate honetatik pasatzeko, asmakizun bat erantzun behar da, eta asmakizuna hau da: Zerk pisatzen du gehiago, bost kilo harrik edo bost kilo lumak? Beheko botoiari zapalduz, esan erantzuna.' Txominek pentsatzen zuen bost kilo harrik pisatzen zutela gehiago. Lidiak, berriz, esaten zuen biak berdin pisatzen zutela, 5 kilo lumak eta 5 kilo harrik kilo kantitate berdina zutelako. Txominek bi aldiz pentsatu, eta Lidiari eman zion arrazoia. Orduan, botoia zapaldu, eta biak batera oihukatu zuten: 'Erantzuna biak berdin pisatzen dutela da!' 2 segundu itxaron zuten, eta, bat-batean atea irekitzen hasi zen. Barrura sartu, eta, gela bat zela konturatu ziren. Paretetan sua zegoen, eta suari esker, argia zegoen. Gelaren bukaeran, beste ate bat zegoen, oraingoan egurrezkoa. Eta berriz ere, zerbait zegoen idatzita atearen eskuinaldean: Oraingoan, eragiketa matematiko bat egin beharko duzue: Zenbat da $10^3 \times 6$? Erantzuna 3 minutu baino lehenagoan jakin beharko duzue, eta emaitza okerra baldin bada, hemen gelditu beharko zarete betiko. Eta erantzuna esan orde, hemen behean idatzi beharko duzue.' Minutu batean, biak erantzun berdina zeukaten buruan, 6.000. Erantzuna idatzi, eta berriro atea ireki zen. Barruan, kirola egiteko gauza asko zeuden. Eta, bat-batean, norbait hitz egiten ari zen audio bat entzun zen: 'Kaixo, oso ongi egin duzue hona iristeko esfortzuak egiten. Baina, orain, proba zailenak datoz. Lehenengo gauza: Lehenengo proban oreka beharko duzue, zertarako? Ba orain esango dizuet. Proba honetan, aurrean bueltaka dagoen enbor gainetik pasatu behar da, eroriz gero, uretara eroriko zarete. Ez da ezer gertatuko, baina ez duzue bola magikoa lortuko. Bigarren proban, hanka luzeak behar dira, saltoak egin behar direlako. Agerian ari diren harrietatik egin beharko duzue salto batetik bestera. Eta, azkenik, 25 metro egin beharko duzue igeri ur oso hotz honetatik. Zorte on!' Elkarlanean, oso ondo moldatu ziren. Lidiak oso oreka ona zuenez, berak egin zuen lehenengo proba, eta, zorionez, ez zen erori! Txominek hanka luzeak zituen, horregatik, berak egin zuen bigarren proba, eta, berak ere proba gainditu zuen! Azkenik, ez zekiten nor egingo zuen hirugarren proba. Baina Txominek bazekienez Lidiari beldurra ematen ziola itotzeak, berak egin zuen azkenengo erronka. Gaizki pasatu zuen, ura izoztuta zegoen eta, baina, noski, lortu zuen. Orain bai, bola magikoa lortuko zuten.

Hiru probak gainditzean, azkenengo atea zabaldu zen, oraingoan diamantezkoa. Eta, irekitzean, berriro zuhaitzak ikusi zituzten, berriro basoan zeuden! Beste zerbait ere ikusi zuten, bola disdiratsu bat! Berehala jakin zuten zer zen, bola magikoa! Baina konturatu ziren ez zutela gauza bat pentsatu, nor eskatuko zuen desioa. Lidiak eskatu nahi zuena 'beldurti' ez deitzea zen. Txominek, berriz, bere aitaren gaixotasuna sendatzea nahi zuen. Lidiari pena ematen zion Txominek. Bazekien garrantzitsuagoa zela Txominek desioa, baina ez zuen nahi Marak, Jonak eta Nereak berari 'beldurti' deitzea. Baina, denbora bat pentsatzen egon eta gero, gogoratu zen bere amonak egun batean esandakoa: 'Pentsatzen duzuna baino

gehiago egin dezakezu, Lidia.' Hitz haiek oroituta, Txomini utzi zion bere desioa eskatzen. Txominek desioa eskatu, eta etxera itzuli ziren, biak oso pozik.

Astelehenean berriz ikastola zeukaten. Lidia eta Txomin egunero joaten ziren batera ikastolara, eta astelehen goizean, Lidia harrituta gelditu zen Txomin ikustean. Autoan zihoan bere aitarekin batera! Bola magikoak funtzionatu zuen, Txominen aita sendatuta zegoen! Lidia autora igo, eta hirurak batera joan ziren ikastolara.

Autoan joan zirenez, goiz iritsi ziren, horregatik, 5 minutu itxaron zuten patioan. Patioan hiru gaiztoak zeuden, eta, Lidia beraiengana gerturatu eta hau esan zien: 'Agian beldurtia naiz, baina zuek ere beste gauza bat izan zaitezke, adibidez, lagun txarrak, ez duzuelako inor ondo tratatzen, batez ere, ni, 'beldurti' deitzen bait didazue. Horregatik, hemendik aurrera nik 'lagun txarrak' deituko zaituztet. Marak, Jonek eta Nereak hori entzun ondoren, konturatu ziren gaizki portatzen ari zirela Lidiarekin. Horregatik, hortik aurrera lagun onak izan ziren, gainera, jada ez zioten gehiago 'beldurti' deitu Lidiari.

Limoga

Ezizena